

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Artista Gazteen 2011ko Topaketan izena emateko epea luzatu du datorren abuztuaren 31ra arte

Lehiaketa 14 eta 30 urte arteko gazte sortzaileei dago zuzenduta

Lunes, 22 de agosto de 2011

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren bidez, Artista Gazteen 2011ko Topaketan izena emateko epea datorren abuztuaren 31ko 12:00ak arte luzatu du.

Lehiaketa UhArte Arte Garaikidearen Zentroarekin elkarlanean antolatu da, eta 14 eta 30 urte arteko sortzaileei dago zuzenduta.

Artistak banaka edo taldeka aurkeztu ahal izango dira hainbat modalitatetan: Arte Eszenikoak, Arte Plastikoak, Ikus-entzunezko Sormena, Genero Literarioak eta Musika.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak, halaber, artistek encuentros2011@centrohuarte.es helbidera posta elektronikoko bat bidaliz lehiaketan izena emateko aukera eman du, aurrez aurre edo Interneten dagoen inprimakiaren bidez egin ezin bada. Honako datu hauek adierazi beharko dira posta elektronikokoan: izen-abizenak, izen artistikoa edo taldearen izena, NAN, jaioteguna, helbide elektronikoa, telefonoa, modalitatea, obraren titulua eta dropboxaren kokapen karpeta.

Lehiaketaren oinarriak www.juventud.navarra.es webgunean aurki daitezke. Zalantzarik izanez gero, interesa dutenek encuentros2011@centrohuarte.es helbide elektronikora idatzi edo 848 427841 -- 848 427831 Nafarroako Gazteriaren Institutura dei dezakete.